


KALITATEZKO HEZKUNTZARI EKARPEN BAT EGITEKO IKASKUNTZA-ZERBITZU PROIEKTU BAT: LANTZIEGO IKASTOLA HERRI IKASTETXEKO ESKOLAZ KANPOKO HEZKUNTZA-BALIABIDEEN BILDUMA.

Fernandez Etxeberria, Markel; Gamito Gomez, Rakel; Fernandez Lasarte, Oihane.

Euskal Herriko Unibertsitatea



SARRERA

Ikaskuntza-Zerbitzua ikaskuntza-metodo bat da, eta ikasleak aktiboki inplikatzeko dira proiektuan eta prestakuntza-prozesuan (Puig et al., 2007). Metodologia horren bidez, gizartearen gabeziak kontuan hartuko dituen hezkuntza-sistema bat sortu nahi da, eta gabezia horiei erantzun bat eman nahi zaie zerbitzu gisa, hurbileko testuingurua hobetzeko (Rubio, 2008).

HELBURUAK

- Ikaskuntza-Zerbitzu proiektu bat aurrera eramatea.
- Nire ikaskuntza-prozesua aztertzea, horren kontziente izateko eta aberasgarriagoa izateko.
- Giza-erakunde, eskola edo komunitate bati zerbitzu eraginkor bat eskaintzea.

METODOA

Zerbitzuaren **testuingurua** Lantziego Ikastola ikastetxe publikoa izan da. Proiektuaren eta zerbitzuaren bitartean, **parte-hartzaileak** eskolako irakasleak, zuzendaritza taldea eta eskola komunitateko eta herriko kideak izan dira. **Informazioa jasotzeko tresna** ezberdinak erabili ditut analisia egin eta emaitzak lortzeko: egunerokoa, balorazio galdetegiak, bilerak. Bukatzeko, hauek izan dira **prozedura**-urratsak: 1. Beharrak identifikatu eta zerbitzua definitu, 2. Informazioa eta zerbitzua prestatu, 3. Ezagutzak laburtu eta zerbitzua egin, 4. Ebaluatu eta emaitzak komunikatu.

EMAITZAK

PLANIFIKAZIOA
EKOIZPENA
BIZIPENAK

Planifikazio fasea eskolako irakasle eta zuzendaritza taldearekin batera egin nuen eta eskolaren beharra, zerbitzua, eta metodoa zehaztu genuen. Lehen momentutik, eskolako zuzendaritza oso inplikaturik egon da. Eskolaren beharra, herriaren errealitatearekin saretzea zen, eta herrian dauden baliabide pedagogikoen bilduma egin nuen. Horretarako, eskolakoek herriko testuingurua ezagutzen

eta jendearekin kontaktua egiten lagundu zidaten. Zerbitzua prestatu bitartean, 35-40 hezkuntza baliabide posiblerekin bildu nintzen, gehienek parte-hartzeko prest. Horietatik, baliabideak aztertu ondoren, 32 sailkatu ditut hezkuntza baliabideen bilduman. Bilduma Google Site bat osatuz partekatu nien eskolako irakasleei eta eskolak oso positiboki baloratu zuen eskaintako zerbitzua.

ONDORIOAK

Emaitzak ikusita, zerbitzuan helburuak bete dira, hartzaileek ondo baloratu dute eta oso erabilgarria dela aitortu dute. Zerbitzua hobetzeko, esan behar da zerbitzua ez zaiola ikasle edota hezkuntza komunitateari zabaldu.

Eta herriko hezkuntza baliabideen erabilera (herria eta eskolaren saretzea) bermatze aldera, beharrezkoa litzateke eskolaren eta hezkuntza baliabideen arteko elkarlana sistematizatzea eta denok aukera horren berri izatea.